

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3482

43/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, zergadunen kredituak eta zerga zorrak konpentsatzeko kontu korronte sistema bat arautzen da, bai eta beste zergadun baten zerga zorra kitatzeko kredituen lagapena ere.

Foru dekretu honek ondoren azalduko diren bi gaiak arautu ditu. Batetik, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 70. artikuluko 3. idatz zatia garatu da zerga kredituak eta zorrak kontu korronteen bidez konpentsatzeko sistema ezartzeko. Bestetik, beste zergapeko batzuen zerga zorrak kitatzeko kredituak lagatzeko modua arautu da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Hori dela eta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

ZERGAPEKOEN KREDITUAK ETA ZERGA ZORRAK KONTU KORRONTEAREN BIDEZ KONPENSATZEKO SISTEMA

1. artikulua. Xedea.

Bat. Kapitulu honetan zerga zorrak kontu korronte baten bidez kitatzeko sistema arautuko da. Hain zuzen ere, sistema horri heltzen dioten zergapekoek ondoko hirugarren artikuluan aipatzen diren zerga zorrak eta kredituak konpentsatu ahal izango dituzte. Konpentsazioa kapitulu honetan ezartzen den bezala egingo da.

Bi. Zergetarako kontu korrontearen sistema ezin da bateratu, bertara bildutako zorrei eta kredituei dagokienez, zergapekoek eskatutako konpentsazio prozedurekin, zorrak geroratzeko eta zatikatzeko prozedurekin, gerorapen kontuen prozedurekin eta zorrak barkatzeko prozedurekin.

Halaber, sistema horren aplikazioa, bertara bildutako zerga kredituei eta zorrei dagokienez, ezin bateratu izango da foru dekretu honetako II. kapituluan arautzen den prozedurarekin: beste zergapeko batzuen zerga zorrak kitatzea kredituen lagapenaren bidez.

Idatz zati honetan aipatzen den bateraezintasuna kapitulu honetan arautzen den zergetarako kontu korrontearen sistemako zerga kreditu eta zor osoei aplikatuko zaie, are sistema partzialki daudenei ere.

Hiru. Kapitulu honetan ezartzen den sistema bateragarria izango da Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 72. artikuluan aipatzen den ofiziozko konpentsazioarekin.

2. artikulua. Aplikazio esparru subjektiboa.

Kapitulu honetan arautzen den zergetarako kontu korrontea erabili ahal izateko, zergapekoek ondokoak bete behar dituzte:

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

3482

DECRETO FORAL 43/2011, del Consejo de Diputados de 31 de mayo, que regula un sistema de cuenta corriente para la compensación de créditos y deudas tributarias del obligado tributario, y la cesión de créditos para la cancelación de la deuda tributaria de otro obligado tributario.

El presente Decreto Foral tiene como objeto regular las dos siguientes materias. Por una parte desarrolla el contenido del apartado 3 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava estableciendo, a tal efecto, un sistema de cuenta corriente tributaria para la compensación de créditos y deudas tributarias. Por otra parte se regula la cesión de créditos por parte de un obligado tributario con la finalidad de cancelar las deudas tributarias de otro obligado tributario.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

CAPÍTULO I

CUENTA CORRIENTE PARA LA COMPENSACIÓN DE CRÉDITOS Y DEUDAS TRIBUTARIAS DEL OBLIGADO TRIBUTARIO

Artículo 1. Objeto.

Uno. El presente Capítulo tiene por objeto regular un sistema de cuenta corriente tributaria que facilite la extinción de las deudas tributarias, a través de un mecanismo que permita a los obligados tributarios que puedan acogerse al mismo, la compensación de las deudas y créditos de naturaleza tributaria contemplados en el artículo 3 siguiente. Esta compensación se realizará en los términos establecidos en el este Capítulo.

Dos. La aplicación del sistema de cuenta corriente tributaria será incompatible, en relación con las deudas y créditos acogidos al mismo, con los procedimientos de compensación a instancia del obligado tributario, de aplazamiento y fraccionamiento del pago, de cuenta aplazamiento y de condonación.

Asimismo, en relación con los créditos y deudas tributarias acogidos al mismo será incompatible con la compensación a través de la cesión de créditos para la cancelación de la deuda tributaria de otro obligado tributario a que se refiere el Capítulo II de este Decreto Foral.

La incompatibilidad a que se refiere este apartado dos se extenderá a la totalidad del crédito o de la deuda tributaria que forme parte, aunque sea sólo parcialmente, del sistema de cuenta corriente tributaria a que se refiere el presente Capítulo.

Tres. El sistema establecido en este Capítulo será en todo caso compatible con la compensación de oficio a que se refiere el artículo 72 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Artículo 2. Ámbito subjetivo de aplicación.

Podrán acogerse a la cuenta corriente tributaria regulada en el presente Capítulo los obligados tributarios que reúnan los siguientes requisitos:

Zerga betebeharrak beteta eduki behar dituzte. Horretarako, zergapekoaren zerga zorrak betetzat joko dira ekainaren 21eko 59/2009 Foru Dekretuko 14. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako inguruabarrak gertatzen badira. Dekretu horren bidez hauxe arautu da: baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzea zerga datuei buruzko jardunetan, prozeduretan eta transmisioetan; informazioa ematea ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu baino lehen; zerga ziurtagiriak egitea, eta zergak aplikatzerakoan kontuan izan beharreko gizarte lankidetzarako printzipioa.

Ezin dira egon hartzekodunen konkurtso prozedura batean.

3. artikulua. Kontu korrontearen bidez konpentsa daitezkeen zorrak eta kredituak.

1. Sistema honetaz baliatuta zergapeko batek bere zerga zorrak eta kredituak konpentsa ditzake kontu korronte baten bidez, baina soilik honela sortu direnak:

Zerga kredituak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren autoliquidazio edo likidazioen ondoriozkoak izan behar dira.

Zerga zorrak hauen ondoriozkoak izan behar dira: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autoliquidazioak edo likidazioak; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zioz eta Sozietateen gaineko Zergaren zioz lanaren etekinei eta enpresa eta lanbide jardueren etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak, kapital higikorren etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak, ondasun higiezinak errentan eta azpierrean emanda lortutako etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak, ondasun irabazien gainean egin beharreko atxikipenak, eta sarie aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aurreko a) eta b) letratan aipatzen diren kreditu eta zorretatik autoliquidazio bidez sortu direnak telematikoki aurkeztu beharko dira, baldin eta arauetan aukera hori ezartzen bada eta zergapekoek aurkezpen modu hori erabili ahal badute.

Gainera, beste baldintza bat ere badago: ezinbestekoa da zergapekoak aurreko b) letran aipatzen den autoliquidazioan adieraztea zerga zorra konpentsatu nahi duela.

2. Kapitulu honetan araututako kontu korrontearen sistema ezin da erabili kreditu eta zor hauek konpentsatzeko:

Borondatezko epealdiaren gaineko arautegian ezarritako epealdia amaitutakoan aurkezten diren autoliquidazioen ondoriozko zorrak.

Ikuskapen aktek edo zehapen prozedurek eragiten dituzten likidazioen ondoriozko zorrak eta kredituak.

Zerga Administrazioak onartutako itzulketei dagozkien kredituak.

Ondoko prozeduretako batean dauden kredituak eta zorrak, prozedurak dirauen artean: berraztertze prozedura berezia edo berraztertze errekurtsoa, erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa ebazteko prozedura.

Beste eskaera batean (konpentsatzeko zein lagatzeko eskaerak zein zergak biltzeko beste prozedura bateko eskaerak) sartutako kredituak eta zorrak. Honek ez du eragozten ondoko idatz zatian ezarritakoa.

3. Borondatezko epealdian dauden zorrak ordainketa geroratzeko edo zatikatze prozeduran badaude, kapitulu honetan arautzen den konpentsazioa aplikatzeko eska daiteke. Hala ere, horrelakoetan zerga zorra kontu korrontearen bidez konpentsatzeko sistema erabiltzeko eskaera aurkezteak berekin ekarriko du zorraren ordainketa geroratzeari edo zatikatzeari uko egitea. Horren ondorioak eta inguruabarrak kapitulu honetan zehaztu dira, batez ere 4. artikuluko 4. idatz zatian.

Encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias. A estos efectos se entenderá que el obligado tributario se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias cuando concurren las circunstancias establecidas en el apartado 1 del artículo 14 del Decreto Foral 59/2009, de 21 de junio, que regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en las actuaciones, procedimientos y transmisión de datos tributarios, de la obligación de información con carácter previo a la adquisición o transmisión de bienes inmuebles, de la emisión de certificados tributarios y del principio de colaboración social en la aplicación de los tributos.

No estar incursos en un procedimiento de concurso de acreedores.

Artículo 3. Deudas y créditos objeto de compensación a través de la cuenta corriente.

1. Las deudas y créditos tributarios que podrán ser objeto de compensación a través de la cuenta corriente tributaria deberán ser del mismo obligado tributario y deberán tener la siguiente procedencia:

Los créditos tributarios deben proceder de autoliquidaciones o liquidaciones correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido y al Impuesto sobre Sociedades.

Las deudas tributarias deben proceder de autoliquidaciones o liquidaciones correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido, al Impuesto sobre Sociedades, al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, a las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre el Impuesto sobre Sociedades sobre rendimientos del trabajo y actividades empresariales y profesionales, a las retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del capital mobiliario, a las retenciones e ingresos a cuenta sobre arrendamientos y subarrendamientos de inmuebles, a las retenciones sobre ganancias patrimoniales y a las retenciones e ingresos a cuenta sobre premios.

En el supuesto de los créditos y las deudas a que se refieren las letras a) y b) anteriores que procedan de autoliquidaciones se exigirá que éstas se presenten por vía telemática, siempre que esta posibilidad esté prevista en la normativa y se encuentre operativa para los obligados tributarios.

Así mismo se precisará que el obligado tributario haya hecho constar en la autoliquidación a que se refiere la letra b) anterior su intención de proceder a la compensación de la deuda tributaria.

2. No podrán ser objeto de compensación mediante el sistema de cuenta corriente tributaria, a que se refiere el presente Capítulo, los créditos y las deudas siguientes:

Las deudas que se deriven de autoliquidaciones presentadas fuera del plazo establecido en la normativa para la presentación dentro del plazo voluntario.

Las deudas o créditos que se deriven de liquidaciones que procedan de acta de Inspección o sean consecuencia de un procedimiento sancionador.

Los créditos correspondientes a devoluciones que hayan sido reconocidas por la Administración tributaria.

Los créditos o deudas tributarias incursas en procedimientos especiales de revisión o de resolución de recurso de reposición, reclamación económico-administrativa o recurso contencioso-administrativo, mientras duren los respectivos procedimientos.

Las deudas o créditos que se hayan incluido en otra solicitud tanto de compensación como de cesión, como de cualquier otro procedimiento de recaudación tributaria, sin perjuicio de lo establecido en el apartado siguiente.

3. Se podrá solicitar la compensación a que se refiere en presente Capítulo de las deudas en período voluntario que se encuentren incursas en un procedimiento de aplazamiento o fraccionamiento tributario. No obstante, en estos supuestos, la solicitud de compensación a través del sistema de cuenta corriente tributaria implicará la renuncia al aplazamiento o fraccionamiento que exista sobre la deuda tributaria, con los efectos y circunstancias que se establecen en este Capítulo, en especial lo establecido en el apartado 4 del artículo 4 de este Decreto Foral.

4. artikulua. Zerga kredituak eta zorrak kontu korrontearen bidez konpentsatzeko eskaerak.

1. Kapitulu honetan araututako kontu korrontearen bidezko konpentsazio sistemari heltzeko ezinbestekoa da zergapekoak sistema hori aplikatzeko eskatu aurretik emaitza dirua itzuli beharra eduki duen autoliquidazioa aurkeztuta edukitzea edo, bestela, halako emaitza duen likidazio baten ondoriozko kreditua edukitzea.

2. Kapitulu honetan arautzen den sistemaren bidezko konpentsazio eskatzeko prozedura konpentsatu nahi den zerga zorra sortzen duen autoliquidazioa aurkeztzen denean hasiko da. Ezinbestekoa da autoliquidazioa bidezko legerian ezarritako epealdiaren barruan aurkeztea.

3. Gero, zergapekoak Zerga Administrazioak ezarritako ereduaren arabera eskaera aurkeztu behar du. Bertan kreditua identifikatu behar du eta zer zor konpentsatu nahi duen azaldu behar du.

Eskaera telematikoki aurkeztu behar da konpentsatu nahi den zorra sortzen duen autoliquidazioa, dirua sartu beharra eragiten duena, aurkeztu ondoren, borondatez ordaintzeko epealdia amaitu ondoko egutegiko lau egunak pasatu baino lehen. Bertan berariaz zehaztu behar dira konpentsatzeko erabili nahi diren itzuli beharreko kredituak sortu dituzten autoliquidazioak edo likidazioak.

Liquidazioaren emaitza dirua sartu beharra bada, idatz zati honetan hizpide dugun eskaera baliabide telematikoen bitartez aurkeztu behar da nork bere borondatez ordaintzeko epealdian, eta bertan berariaz zehaztu behar dira konpentsatzeko erabili nahi diren itzuli beharreko kredituak sortu dituzten autoliquidazioak edo likidazioak.

4. Zergapekoek ezin dute eskatu konpentsatzeko zerga kredituaren ehuneko 80 baino gehiagoko zerga zorrak.

Baldin eta zerga zorra zerga kredituaren ehuneko 80 baino gehiago bada, diferentzia berehala ordaindu behar da eta ezin da eskatu zerga zorra beste modu batean azkentzeko, ez eta ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako sarrera bi modutara egin daiteke: kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatu nahi den zerga zorra sortzen duen autoliquidazioarekin batera, edo bestela Zergabilketa Zerbitzuak emandako ordainketa gutunaren bitartez (gutunean bidezko berandutze korrituak sartu behar dira).

5. Zergetarako kontu korrontearen sistemako kredituak ondoren azalduko den ordenan konpentsatuko dira zerga zorrekin:

lehenengo, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zioz eta Sozietateen gaineko Zergaren zioz lanaren etekinen eta enpresa eta lanbide jardueren etekinen gainean aplikatu beharreko atxikipenei eta konturako sarrerei eta sarien gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei dagozkienak.

ondoren, higikorren kapitalaren gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei dagozkienak;

ondoren, ondasun higiezinak errentan eta azpierrontan emanda lortutako etekinei aplikatu beharreko atxikipenei eta konturako sarrerei dagozkienak;

ondoren, Sozietateen gaineko Zergari dagozkionak;

gero, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagozkionak;

ondoren, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagozkionak;

ondoren, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak;

azkenik, ondare iragazien gaineko atxikipenei dagozkienak (sarien irabaziak alde batera utzita).

Idatz zati honetan ezarritako taldeetako baten barruan hainbat zerga zor badaude, mugaegunaren arabera hurrenkeran konpentsatuko dira, zaharrenetik hasita.

Artículo 4. Solicitudes de compensación mediante el sistema de cuenta corriente tributaria.

1. Para acogerse al sistema de cuenta corriente tributaria regulado en este Capítulo será necesario que el obligado tributario haya presentado, con anterioridad a la solicitud de aplicación de dicho sistema, una autoliquidación con resultado a devolver o disponer de un crédito procedente de una liquidación con resultado a devolver.

2. El procedimiento para solicitar la compensación a través del sistema de cuenta corriente tributaria a que se refiere este Capítulo se iniciará mediante la presentación de la autoliquidación que genera la deuda tributaria que se pretende compensar. Esta autoliquidación ha debido presentarse dentro del plazo establecido en la legislación correspondiente.

3. A continuación, el obligado tributario deberá presentar una solicitud, ajustada al modelo establecido por la Administración tributaria, en la que deberá identificar el crédito y, a continuación, las deudas para las que solicita la aplicación del sistema de cuenta corriente tributaria.

Esta solicitud deberá presentarse por vía telemática con posterioridad a la presentación de la autoliquidación con resultado a ingresar cuya deuda se pretende compensar y como máximo dentro de los cuatro días naturales siguientes a la finalización del período voluntario de presentación de la misma, y en ella se indicarán expresamente las autoliquidaciones o liquidaciones a devolver que constituyan los créditos objeto de compensación.

En el caso de que se trate de una liquidación con resultado a ingresar, la solicitud a que se refiere este apartado deberá presentarse por vía telemática dentro del plazo para efectuar el pago en período voluntario, indicando expresamente las autoliquidaciones o liquidaciones a devolver que constituyen los créditos objeto de compensación.

4. Las deudas tributarias que el obligado tributario solicite a compensar no pueden superar el 80 por ciento del crédito tributario.

En el caso de que la deuda tributaria supere el 80 por ciento del crédito tributario será necesario proceder al ingreso de la diferencia de forma inmediata, no siendo posible la solicitud de ninguna otra forma de extinción de la deuda tributaria, ni siquiera la presentación de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago.

El ingreso a que se refiere el párrafo anterior se podrá efectuar en la propia autoliquidación que genere la deuda tributaria para la que se solicita la compensación a través del sistema de cuenta corriente tributaria, o en su caso mediante la correspondiente carta de pago emitida por el Servicio de Recaudación que incluirá, en su caso, los correspondientes intereses de demora.

5. Los créditos objeto del sistema de cuenta corriente tributaria se compensarán con las deudas tributarias de acuerdo con el siguiente orden:

en primer lugar, las correspondientes a las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre el Impuesto sobre Sociedades sobre rendimientos del trabajo y actividades empresariales y profesionales, así como las correspondientes a retenciones e ingresos a cuenta sobre premios.

en segundo lugar, las correspondientes a las retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del capital mobiliario;

en tercer lugar, las correspondientes a las retenciones e ingresos a cuenta sobre arrendamientos y subarrendamientos de inmuebles;

en cuarto lugar, las correspondientes al Impuesto sobre Sociedades;

en quinto lugar, las correspondientes al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados;

en sexto lugar, las correspondientes al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones;

en séptimo lugar, las correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido

y, en último lugar, las correspondientes a retenciones sobre ganancias patrimoniales, excluidas las relativas a los premios.

Si dentro de un mismo grupo de los señalados en este apartado existen varias deudas tributarias se compensarán las deudas con fecha de vencimiento más antigua con anterioridad a las de fecha de vencimiento más reciente.

5. artikulua. Eskaera handitzea, ezeztatzea eta uko egitea.

1. Baliabide telematikoen bidez zergapekoek konpentsazio eskaera handitu ahal izango dute, hau da, zerga zor gehiago konpentsatzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta kreditua itzuli beharra erabaki ez bada eta kapitulu honetan ezarritako guztia betetzen bada.

2. Harik eta izapidetzeko onartu arte, zergapekoek noiznahi ezeztatu ahal izango dituzte zergetarako kontu korrontearen bidezko konpentsazioen eskaerak. Ezeztapena telematikoki egin beharko da, eta behar den kasuetan berandutze korrituak sortuko ditu.

3. Konpentsazio eskaera izapidetzeko onartutakoan, zergapekoek uko egin ahal izango diote zergetarako kontu korrontearen sistema aplikatzeari Zergabilketa Zerbitzura idazkia bidalita. Baliteke sistemari uko egiteak berandutze korrituak ordaindu beharra ekartzea.

6. artikulua. Eskabidearen izapideak.

1. Zerga kredituak eta zorrak kapitulu honetan arautzen den kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatzeko eskaerak Zergabilketa Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzu horretako buruak kapitulu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaerei baiezkoa ematea ebatziko du.

2. Aldiz, foru dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten eskaerak ez dira onartuko izapidetzarako. Hain zuzen ere, kasu hauetan eskaera ez da izapidetuko:

Eskaera aurkezten denetik izapidetzeko onartu arteko aldian zergapekoak bere zerga betebeharren bat betetzen ez badu.

Eskaera aurkezten denetik izapidetzeko onartu arteko aldian Zerga Administrazioak konpentsatu nahi den kreditua onartzen badu edo kreditua itzultzen bada.

Kompentsatu nahi den zerga zorraren eta eskatutako kredituaren arteko diferentzia ordaintzen ez bada, foru dekretu honetako 4. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Espedientea Zerga Administrazioak zerga kreditua onartu ondoren ebatziko da, eta zergapekoari jakinaraziko zaio.

7. artikulua. Ofizioz ezeztatzea.

Kompentsatutako zerga zorrari dagokion autoliquidazioaren edo likidazioaren inguruko likidazio egintza bat gertatuz gero, Zergabilketa Zerbitzuak ofizioz ezeztatuko du zor horri dagokion kontu korrontea, eta zergapekoak zerga zorra eta beraren berandutze korrituak sartu beharko ditu, ondoko kasuan izan ezik: foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera berriz ere konpentsatzeko edo konpentsazioa handitzeko eskatu ahal badu.

8. artikulua. Berandutze korrituak.

1. Kontu korrontearen bidez konpentsatzeko eskatzen den zerga zorrak ez du berandutze korriturik sortuko, baldin eta Zerga Administrazioak zergapekoaren eskaera onartzen badu eta, bidezko izapideak egin ondoren, konpentsatu nahi duen zerga zorraren besteko kreditua onartzen badio.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, zerga arautegian ezarritakoaren arabera bidezkoa den kasuetan ez ezik ondoko hauetan ere sortuko dira berandutze korrituak:

Zerga Administrazioari kudeaketa organoek dirua itzuli beharra eragiten duten autoliquidazioak egiaztatzean itzuli beharreko kopurua aitortpenekoa baino gutxiago dela ondorioztatuz gero. Halakoetan itzulketa likidatuko da, baina bidezko berandutze korrituak sortuko dira konpentsatzeko eskatu den zerga zorraren mugaegunetik aurrera.

Artículo 5. Ampliación, anulación y renuncia.

1. El obligado tributario, por vía telemática, podrá ampliar la solicitud de compensación solicitando la inclusión de nuevas deudas tributarias siempre que no se haya acordado la devolución del crédito y que cumpla los requisitos establecidos en este Capítulo.

2. El obligado tributario podrá anular la solicitud de compensación a través de cuenta corriente tributaria hasta el momento en que la misma sea aceptada a trámite. La anulación se deberá efectuar por vía telemática y originará, en su caso, el devengo de los correspondientes intereses de demora.

3. Una vez admitida a trámite la solicitud de compensación, el obligado tributario podrá renunciar a la cuenta corriente tributaria, previo escrito dirigido al Servicio de Recaudación. La renuncia originará, en su caso, el devengo de los correspondientes intereses de demora.

Artículo 6. Tramitación de la solicitud.

1. Las solicitudes de compensación a través del sistema de cuenta corriente tributaria a que se refiere el presente Capítulo serán tramitadas por el Servicio de Recaudación y, si reúnen los requisitos señalados en el mismo, serán resueltas favorablemente por la persona que ostente la jefatura del Servicio de Recaudación.

2. Se denegará a trámite la solicitud presentada por el obligado tributario cuando no se cumplan los requisitos establecidos en este Decreto Foral. En especial, se denegará a trámite la solicitud:

Cuando entre el momento de la solicitud y el de su admisión a trámite se haya producido el incumplimiento por parte del obligado tributario de sus obligaciones tributarias.

Cuando entre el momento de la solicitud y el de su admisión a trámite se haya producido el reconocimiento por parte de la Administración tributaria del crédito que se solicita compensar o se ha producido la devolución efectiva del crédito.

Cuando no se produzca el pago de la diferencia entre la deuda tributaria cuya compensación se pretende y el crédito solicitado, de acuerdo con lo establecido en el apartado 4 del artículo 4 de este Decreto Foral.

3. La resolución del expediente se producirá posteriormente a que se produzca el reconocimiento del crédito tributario por parte de la Administración tributaria y será notificada al obligado tributario.

Artículo 7. Anulación de oficio.

Cuando se produzca un acto de liquidación sobre la autoliquidación o liquidación que se relacione con la deuda tributaria objeto de compensación, el Servicio de Recaudación procederá a la anulación de oficio de la cuenta corriente tributaria, referida a dicha deuda tributaria, debiendo el obligado tributario proceder al ingreso de la deuda tributaria, con los correspondientes intereses de demora, salvo que, en aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral pueda solicitar de nuevo la compensación o ampliación a través de la cuenta corriente tributaria.

Artículo 8. Interés de demora.

1. No se devengarán intereses procedentes de la deuda tributaria cuya compensación se solicita a través de la cuenta corriente tributaria siempre que la Administración tributaria acceda a la solicitud formulada por el obligado tributario y, tras los trámites oportunos, se reconozca el crédito a favor del obligado tributario por el mismo importe solicitado para atender a la deuda tributaria objeto de la solicitud de compensación.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, sí se devengarán intereses de demora, además de en los supuestos que procedan de acuerdo con lo establecido en la normativa tributaria, en los siguientes supuestos:

En el caso de que al realizar la comprobación por los órganos gestores de la Administración tributaria de las autoliquidaciones con resultado a devolver resultaran unas cantidades inferiores a las declaradas. En este caso, se procederá a liquidar la devolución si bien se devengarán los correspondientes intereses de demora calculados desde el vencimiento de la deuda tributaria cuya compensación se ha solicitado.

Ofizios edo zergapekoak eskatuta, kontu korrontearen bidez konpentsatzeko eskaera ezeztatuz gero. Berandutze korrituak konpentsatzeko eskatu den zerga zorraren mugaegunetik aurrera kalkulatu dira.

Kompentsatzeko eskatu den zorra ordainketa geroratzeko edo zatikatze prozedura batean badago. Honelakoetan berandutze korrituak sortuko dira zorraren mugaegunetik konpentsatzeko eskaera aurkeztu arte.

Zerga Administrazioak ofizios konpentsatzen baditu zerga zorrak, ordainarazteko epealdian daudelako zein haien ordainketa geroratu edo zatikatuta dagoelako. Berandutze korrituak konpentsatzeko eskatu den zorraren mugaegunetik aurrera kalkulatu dira.

9. artikulua. Zerga zorren eta kredituen gaineko ondorioak.

1. Zergapeko batek bere zerga zor batzuk kapitulu honetan araututako kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatzeko eskatzen badu, zor horiek ordainarazteko epealdia etengo da.

2. Kontu korrontearen sistemari heldutako zerga zorrak eta kredituak konpentsazio bidez kitatuko dira zergapekoari kreditua onartzen zaionean.

3. Zergapeko batek eskatzen badu aplikatzeko kontu korrontearen sistema ordainketa geroratzeko edo zatikatze prozedura batean sartuta dagoen zor bati, jarritako bermea zerga zorra erabat kitatu arte mantendu beharko da.

II. KAPITULUA

KREDITUAK LAGATZEA BESTE ZERGAPEKO BATEN ZERGA ZORRA KITATZEKO

10. artikulua. Xedea.

1. Zergapeko batek dirua itzuli beharra dakarren autolikidazioa aurkezten badu, eskatu ahal izango du Zerga Administrazioak onartzen dion itzulketaren zenbatekoa beste zergapeko baten zerga zorra kitatzeko erabiltzeko. Konpentsazioa kapitulu honetan ezartzen den bezala egingo da.

2. Zerga kreditua lagatzeko sistema, kapitulu honetan arautzen dena, ezin da bateratu, bertara bildutako zorrei eta kredituei dagokienez, zergapekoek eskatutako konpentsazio prozedurekin, zorren ordainketa geroratzeko eta zatikatze prozedurekin, gerorapen kontuen prozedurekin eta zorrak barkatzeko prozedurekin.

Halaber, sistema horren aplikazioa, bertara bildutako zerga kredituei eta zorrei dagokienez, ezin bateratu izango da foru dekretu honetako I. kapituluaren arautzen den zergetarako kontu korrontearen bidezko konpentsazioarekin.

Idatz zati honetan aipatzen den bateraezintasuna kredituak beste zergapeko baten zerga zorra kitatzeko lagatzeko sistemako zerga kreditu eta zor osoei aplikatuko zaie, are sistema partzialki daudenei ere.

3. Foru dekretu honetan ezartzen den sistema bateragarria izango da Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 72. artikuluan aipatzen den ofiziosko konpentsazioarekin.

11. artikulua. Aplikazio esparru subjektiboa.

1. Zergapeko batek dirua itzuli beharra dakarren autolikidazioa aurkezten badu, eskatu ahal izango du kreditu hori beste zergapeko baten zorra kitatzeko erabiltzeko; horretarako ondokoak bete behar ditu:

Zerga betebeharrak beteta eduki behar ditu. Horretarako, zergapekoaren zerga zorrak betetzat joko dira Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 59/2009 Foru Dekretuko 14. artikuluko 1. idatz zatian

Quando se produzca la anulación de oficio o a instancia del obligado tributario de la solicitud de compensación a través de la cuenta corriente tributaria. Los intereses de demora se calcularán desde el vencimiento de la deuda tributaria cuya compensación se ha solicitado.

Quando la deuda sobre la que se solicita la compensación se encontrase incursa en un procedimiento de aplazamiento o fraccionamiento de pago. En este caso se devengarán los correspondientes intereses de demora desde el momento del vencimiento de la deuda hasta el momento de la solicitud de compensación.

Quando la Administración tributaria proceda a la compensación de oficio de deudas tributarias, bien porque éstas se encuentren en período ejecutivo, bien porque éstas se encuentren aplazadas o fraccionadas. Los correspondientes intereses de demora se calcularán desde el vencimiento de la deuda cuya compensación se ha solicitado.

Artículo 9. Efectos sobre las deudas y créditos tributarios.

1. Las solicitudes de compensación mediante el sistema de cuenta corriente tributaria a que se refiere el presente Capítulo suspenderán el inicio del período ejecutivo de las deudas tributarias para las que el obligado tributario haya solicitado la aplicación de dicho sistema.

2. Las deudas y créditos tributarios objeto de este sistema de cuenta corriente tributaria se extinguirán por compensación en el momento en que se produzca el reconocimiento del crédito a favor del obligado tributario.

3. En el supuesto de que se solicite la aplicación del sistema de cuenta corriente tributaria sobre una deuda que se encuentre incursa en un procedimiento de aplazamiento o fraccionamiento, la garantía aportada se mantendrá hasta el momento en que se extinga totalmente la deuda tributaria que originó la prestación de la garantía.

CAPÍTULO II

CESIÓN DE CRÉDITOS PARA LA CANCELACIÓN DE LA DEUDA TRIBUTARIA DE OTRO OBLIGADO TRIBUTARIO

Artículo 10. Objeto.

